



Alaia Elaia





Onkologia-gaixotasunen bat duten
haur guztientzat.



Lehenengo argitaraldia, 2014ko ekaina.

Testua: Ana García de Motiloa Gámiz.

Ilustrazioak: Patricia Nagashiro Vaca.

Euskaratzailea: Jon Suarez Barrutia.

Diseinu grafikoa: Patricia Nagashiro Vaca

Jatorrizko izenburua: Lina, la pequeña golondrina.

RPI: VI - 98 - 14

Testua: Ana M^a García de Motiloa Gámiz

Ilustrazioak: Patricia Nagashiro Vaca





Elai zoriontsu bat zen Alaia. Han bizi zen gure elai alaia,
etxe zuri batean, teilatu-hegalpean, habia bigunean,
famiaren babesean.




Aita zuen dotorea eta fina, funanbulu abila, izenez Dagonila.
Ibiltzen zen harro hanka-puntetan eta zuen bide orain haria
orain alanbrea, sentitu gabe inoiz kalanbrea.

Alkandora zuria soinean, kapa iluna bizkarrean,
begizta gorria txukun lotuta guztiaren gainean.



Ama, berriz, Loreila. Kantu kantari beti, txiruliru-txirurila.
Seiko koruan pozik txio: txiotxio-txorrotxio.
Apain eta txukun taldea, jantzita zuri-beltzez, pinpirin eta artez.





Bi senide zituen Alaiak,
biak ere biak bera bezain alaiak.
Neba zen Galaia; ahizpa, berriz,
Olaia. Aitak eta amak, hegazkinen pare,
jartzen zituzten kumeen mokoetan
hamaika hartxo eta zizare.
Eta txikiek gosea bare-bare.
Ekaina joan eta uztaila hasi,
hirurak ari ziren hazi eta hazi.

Baina astelehen iluntze batean Alaiak galdu
egin zuen gosea,
handik aurrera beti sentitzen zen ase.
Jarri zen nahiko zurbil,
nahi zuen familia hurbil, hain zegoen ahul,
gau eta egun eztul eta eztul.





Gurasoak, kezkatuta oso,
Alaiarekin joan ziren hegan, animoso.
Baso bat, bi baso, bidaia luze eta astuna.
Baina azkenean han zen zuhaitz jakituna.
Entzun zien honek adi eta zintzo, bitartean ez zen mintzo;
begiak zabal-zabalik, ez zuen mugitzen adarrik.

Pentsatu ondoren ordu erdiz, esan zien ahots eztiz:

“Zoazte izeia ikustera, oso trebea da bera.
Sartuko du Alaia enbor argituan,
gaixotasuna non den ikusteko segituan”.



Eskerrak emanda agurtu zuten jakituna.
Abiatu ziren ziztuan bilatzera izei argiduna.
Hega-hega-hegaka lurraren arrasean.
Esan zidan aitonak atzo arratsean:
“Elaiak lurretik hurrean, euria hurrean”.



Bat, bi, hiru tanta...; hodeiak euri zaparradaka,
animaliak korri harrapataka.

Halakoetan Alaiari eguzkiak esan ohi dio:
“Euria ari du, adio!”

Euripean ez da ezer berdina,
hiru elaiak jantzi zituzten botak eta gabardina.





Berriz bidea hartuta,
azkenik ikusi zuten izeia, bazituena zenbait ideia.
Ez zen batere txepela, erantzi zuen txapela.
Sartu zuen Alaia enbor hutsean,
ia luma hutsean, ondo aztertu nahi zuelako:
hanka, tripa, buru eta moko.



Sartzean enbor hutsean,
beldurra izan zuen Alaiak bihotzean.
Baina izan zen bipila,
elaia zintzoa sartu zen bakarrik... ausardia pila!

Zain zituen sei ipurtargi lagun, korroan zebiltzan,
esan dezagun. Jostaka, jostari,
kilker-doinuan dantzari, ipurdiekin eguzkia osatzen ari.

Horrela, egin zen argia enbor hutsean,
eta Alaiaren beldurra geratu zen hutsean.

Kanpoan zain zituen aita eta ama,
pozik irten zen Alaia haiengana.

Izei onean geratu zen Alaia;
habia zuria, ederra talaia. Inguruan zuen ama,
inguruan aita, orain kanta eta orain maita.

Elaizainak ere baziren, laztan bai, keinu ere bai.





Izei hostoek Alaiari zizta txikiak egiten,
sendagaia zioten txikiari ematen.
“Ospa, alde, gaixotasun”, zioten.

Izei onak ez zuen gustuko Alaiari min ematea,
horregatik erabaki zuen zera egitea:
pinazitxo bat jarri zion bihotzaren ondo-ondoan,
horrela sendagaiak jakingo zuen ondo nondik joan.

Poliki-poliki egunsenti aurretik,
hasi ziren lumak erortzen Alaiaren soinetik.

Orduan, Karlota marmotak
edredoi leuna egin zion lumez,
goxo-goxo Alaia estal zedin gauetz.



Egun batzuetan hartu zuen Alaiak atsedea.
Bitartean fruitu gorri bila ibili ziren lagunak han eta hemen,
jakitunak esanda baitzekiten bazutela sendatzeko nahikoa ahalmen.

Hartu zituen Alaiak fruituak; gauzez batzuk eta besteak egunez.
Laster poztu zen ikustean hasi zirela lumak irteten indarrez.





Pasatu zen denbora,
atertu zuen eta agertu eguzkia zeruan gora.
Argi eta bero, elaiak hegaka ero.

Ortzadarra irten zen zazpi kolorez,
eta estali zuen basoa milaka koloreko lorez.

Izeia utzita hirurak itzuli ziren beren habira.
Han zeuden Galaia eta Olaia zain bira eta bira.
Eta haiekin, urduri, izeba Elbira.



Gabonak ziren, biba! Urrutian ikusi zuten zuhaitz baten dirdira.

Ipuiñ hau, nagusiki, gaixotasun onkologikoren bat duten umeei zuzenduta dago.

Ipuiñaren bidez, haur horiek Alaia elai protagonistarekin identifikatu ahal izango dira. Izan ere, Alaia elai zuhaitz jakitunera (medikuarengana) eta izeira (ospitalera) joango da. Halaber enbor hutsean sartuko da (erresonantzia), pinazitxo bat jarriko diote (gordailua) eta fruitu gorri batzuk hartuko ditu (medikazioa).

Metafora hauek guztiak lagungarri izan dakizkioke haurrari bere emozioei hitzak jartzeko.

Ana M^a García de Motiloa

